


FUNTSEZKO JARDUERAK ETA BALIABIDEAK

Enpresan egin beharko genituzkeen jarduera garrantzitsuenak negozio-ereduak funtziona dezan plataformako edo sareko jarduerak dira; hots, plataforma teknologikoak kudeatzea, mantentzea eta sustatzea. Izan ere, bezeroekin harremantzeko dugun era bakarra da, ez baitugu haiekin fisikoki egoteko aukerarik izango. Bestalde, produktuen eskaintza denda eta taberna hauen esku egongo denez, ez gara ekoizpenaz arduratu beharko. Horregatik, fokoa plataforma eta sare sozial hauek ahalik eta eguneratuenak eta ulergarrienak izatean jarriko dugu; gure bezeroentzako eroso eta erabilerraz izateko. Banaketa jardueri dagokienez, esan bezala, ez dira gure ardurapean egongo, horretaz parte hartuko duten dendak arduratuko baitira.



Proiektua aurrera eramateko beharrezko baliabideak oso urriak dira. Alde batetik, baliabide fisikoei dagokienez, dendak eta dendek eskainiko dizkiguten baliabide zein produktuak soilik beharko ditugu; hortaz, behin gurekin lan egingo duten dendak lotuta, ez gara baliabide fisikoez arduratu beharko. Baliabide intelektual edo giza baliabideei erreparatuz, informatikako zein webguneak diseinatzeko ezagutzak izango ditugu beharrezkoak. Horregatik, proiektua martxan jarri baino lehen ezagutza hauek eskuratzeko ikasketak burutuko ditugu; webgunea gure ekimena aurrera eraman ahal izateko ezinbesteko tresna baita. Azkenik, beharko ditugun finantza baliabideak udaletxearengandik jasoko ditugun diru-laguntzak izango dira. Diru hau bereziki publizitatean izango ditugun gastuei aurre egiteko erabiliko dugu, kartelak sortzeko materialak eskuratzeko, webgunea diseinatzeko, etab.